

**KULTUR GUNEAREN 10. BILERA****BERTARATUAK:**

KULTURA TEKNIKARIA	BORTZIRIETAKO GORRIAK
ARRANO ELKARTEA	ERRALDOI ETA BURUHAUNDIEN KONPARTSA
BETI-GAZTE (KULTURA)	GILTZARRI ABESBATZA
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA	LESAKAKO SOINULARIAK
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA	ELUTXA TXARANGA
IRAIN GURASO ELKARTEA	LESAKAKO EUSKARA BATZORDEA
MAIRU ANTZERKI TAILERRA	LESAKAKO MUSIKA BANDA
SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEA	TXISTULARI TALDEA
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA	GEROA BAI UDAL TALDEA
ARKUPE PELOTAZALE ELKARTEA	EH BILDU UDAL TALDEA
LESAKAKO ABESBATZA	

1. Aitzineko aktaren onarpena egin da.
2. Udako Zikloa: Kale ikuskizunak antolatzeke helbruekin, udan ekitaldi ezberdinak antolatuko ditugu. Maiatzerako egitaraua lotua izan nahi dugu zikloa komunikatzeko astia izateko.

Datak: Uztailaren 17an hasi eta hurrengo 8 asteburutan egingen dira ekitaldi hauek: Uztailaren 24 eta 31an, abuztuaren 7, 13, 21 eta 30ean (azkeneko hau eguerdian) eta irailaren 4ean.

Momentuz, ondokoak adostu ditugu:

- Musika/helduak: Ainara Ortega eta Hurih
- Bakarrizketa: *Bakean dagoena bakean utzi*

Bertzalde, ondorengoak bilatuko ditugu:

Txontxongiloak (*Egur taupadak*), magoren bat, *Hor dun koxka*, Lesaka Kantuz, dantza ikuskizunen bat eta ganbara musika.

3. Harriondoako ekitaldiak: Momentuz eginen direnak aurkeztu dira, hala nola, *Zaldi Urdina* (martxoaren 7an) eta *Concavo Convexo* (urriaren 17an). Aipatu, bi ekitaldi hauek Nafarroako Antzoki Sarearen baitan daudela eta diru-laguntza emanen digutela herrira ekartzeagatik. Bertzalde, Haur Kantarien Txapelketa (martxoak 14) eta Jabier Petrirenaren antzerkia (maiatzaren 30ean).

4. Harriondoako araudia: Kultura-bilgunekeo talde guztiek jaso dute indarrean dagoen araudia. Aurkezpena egin da eta arautegiaren laburpena egin da. Proposamena luzatu da Udaletik: Aurtengoan, ekaina bitarte, dagoen araudia aztertzea eta proposamenak egitea. Egindako proposamen edo aldaketak heldu den urterako sartuko ditugu. Komentuko elizaren erabilera aztertu beharra da: Haur-txokoa, erakusketak...

5. Kezkak eta beharrak:

-Sorginxuloren logotipo lehiaketa martxan da, martxoaren 13a bitarte aurkezten ahalko dira lanak.

-2020ko San Ferminetako lehenbiziko besta batzordea martxoaren 31an eginen dugu, 19:00tan Herriko Etxean.

-Larrabetzuko Liburu Zuria nolakoa den ikusi dugu. Gurea egiteko, elkarte bakoitzak 2 orrialde izatea, letra taimana 12 eta letra-tipoa *Times new roman* izatea adostu dugu. Apirilaren 6an egindako lanak aztertuko ditugu.

-Hurrengo bilera apirilaren 4ean egitekoa zen. Egun horretan Zubiriari eginen zaion omenaldia dela eta, Kultura-bilgunearen bilera egunez aldatzeko proposamena egin da. Aldaketa egitea onartu da beraz,

Hurrengo bilera 2020ko apirilaren 6an, astelehena, arratsaldeko 19:00tan eginen dugu Harriondoan eta bilerak ordu eta erdiko iraupena izanen du.